

zuzendariari

(0034) 943 300 222



zuzendariari@egunkaria.com



Martin Ugalde kultur parkea 20140 Andoain

Eskerrik beroena Arrasatearrei

Juan E. Barrena Gorostiza (Arrasateko Etxerat-eko kidea)

Joan den ekainaren 31ean *Noizko?* ekitaldira bertaratu ginenok espainiar Estatuko espetxeetan bahiturik jarraitzen duten 124 preso senideen duintasuna frogatzeko aukera izan genuen.

Senide hauek esku artean zeramaten kate luzea dispertsioak urte luzez eragindako bidaia luzeen ikur izan zen. Baita aspalditik sentitutako bakardadearen eta halabeharrez gastatutako diruaren ikur izan ere. Zeresanik ez kartzelatutako senideak ondoan eta aske izateko nahia etengabeko jarraitkortasuna izan duela. Dena den, katearen bidez espainiar Estatuak senideekiko era-

kutsitako injustizia, zapalkuntza eta nagusikeria salatu nahi izan zuten.

Ordu gutxiz izan arren, *Noizko?* ekitaldia 124 preso politiko hauen senideei egunero sufritzen duten oinazea arintzeko baliagarria izan zitzaien, eta lan horretan eskualdeko ehun talde eta erakunde baino gehiago aritu ziren. Izan ere, aspalditik senide maitareen itzulera itxaroten duten bihotzek ehunka herritarrek eskainitako maitasunari eta elkartasunari esker puztu ziren. Senideok herri honen zati baten bultzada izan zuten, euskal presoak gure artean izateko eskubidearen alde egiten duenarena. Legeak hala dio, nahiz eta lege arrotzak zaizkigun.

Ekitaldian ez zen Arrasate osoa egon, eta etxean geratu zirenek beren buruei galdetu beharko diete ea zergatik hala jokatu zuten. Nolanahi ere, egiazko jarraipen bio-

lentzia sufritzen duten senideei elkartasuna eta laguntza ematera agertu zirenak nahikoak izan ziren. Zentzugabeko bidaia egitera behartuak izateari jarraipen biolentzia deritzo. Biolentzia hori da ehunka euskal familien batasuna eragozten duena, erakunde publiko, komunikabide eta alderdi politikoen gehiengoaren konplizitatearen nahitaezko laguntzaz.


Illo horretan, ez dakigu *Noizko?*-n parte hartu zenutenon presentziak kartzelutako sufrimendua arintzeko balioko duenetz, baina ziur izan senideek zuen aldetik jasotako laguntza eta elkartasuna eskertu zituztela, orain hain beharrezkoak dituzten gauzak hain zuzen ere. Etxerat-en aldetik esker mila *Noizko?* gauzatzen lagundu zenuten pertsona, talde eta erakunde guztiei. Hurrengo hitzordua Iruñean dugu.

ETBko okerrak zuzendu nahian

Iñaki Agirresarobe • USURBIL (GIPUZKOA)

Ekainaren 29an gaueko Gaur Egun albistegia entzuten ari nintzela, hara non begietako mina sorrarazi zidan errakuntza bat azaldu zen telebistan pantailan. Kultur albisteen atalean Euskal Herria Zuzenean jaialdiko irudiak ematen ari ziren unean, *Arrosa (Zuberoa)* ipini zuten. Nik dakidala, Arrosa Nafarroa Beherean dago, lekuz aldatu ez badute behintzat. Albistegi askotan Ipar Euskal Herriko herrialdeei Iparralde deitzen dioten arren, zorionez oraingo honetan herrialdeka banatu zuten, baina tamalez erraturik. Hurrengo baterako zerbaiterako balio dezala hankasartze honek.

hemeroteka



Une bat... Ez al genuke guk haren atzetik korrika egin behar? Zuk korrika egin eta isildu.

galdeiozu... ?



Asko hitz egin da euskararen erabileraren kale neurketaren inguruan. Baina zenbaterainoko sinesgarritasuna dauka?

Jon Ruiz (Donostia)

OLATZ ALTUNA

SEIk egindako euskararen kale neurketaren koordinatzailea

Kale neurketak hamabi urteko ibilbidea du eta dagoeneko metodoa aski kontrastatua dago. Emaizak adierazgarriak dira eskualde, lurralde eta Euskal Herri mailan. Ez, ordea, udalerri mailan, udalerri gehienetan jasotako elkarrizketa kopurua ez baita nahikoa ondorioak ateratzeko. Emaizak sinesgarriak badira ere, horrek ez du esan nahi interpretazio guztiak hala direnik. Interpretaziorako bi ohar: batetik, kaleko elkarrizketetan euskararen erabilera zenbatekoa den neurtu da (eta ez zenbat euskaldunek hitz egiten dugun euskaraz); bestetik, portzentia zehatzak baino esanguratsuagoa da urtetan datuek erakusten duten joera.

Uztailaren 16tik aurrera **Iker Pou** • Eskalatzailea izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta

Aitziber Perez Karkamo



Hamar metro karratuko bidaia

Udako irteera operazioetan bat egiten dute paradisuaren bila doazen noizbehinkako bidaiariek eta urte osoko bidaien ostean paradisuak begizatzen ez duten errepideetako senideek. Azkenei buruz jende gutxi mintzatzen da eta albistegiek ez dute haientzako tarterik. Turistekin duten ezaugarri komuna dispositibo bereziak dira, trafikorako taldeak jartzen dituzten bezala, poliziek kontrol bereziak ezartzen dituztelako asteburuetako bidaiarientzat ere.

Artega doaz oporretara, jaiegunek beti sortzen baitute urduritasuna. Nerbioak, presa, ezohikoak diren bi aste horien aurrean. Artega doaz asteroko bidaiariak, ohikotasunak urduri egoteko arrazoiak badirela erakutsi baitie. Bidaiari batek maleten errepaso azkarra egin du. Zenbait gauza ahanzi dituzte etxean eta beranduegi da buelta emateko; beti dago hondar-

tzako azokara joateko aukera. Paketearen errepaso sakona egin du beste autoko gidariak, laugarren errepasoa honezkero. Zerbait ahazteak bi aste itxarotea dakar eta hango supermerkatuan ez dute halakorik saltzen; instantzia bidez eskatuta soilik lor daiteke horrelakorik.

Udako irteera operazioan abiatutakoak iritsi dira paradisuara. Albistegietan hondartza zabalen irudiak eman dituzte. Ahaztutakoak erosteko dendak, menua merke eskaintzen dituzten jatetxeak nonahi; bi astetan hamaika istorio erdituko dituzten parajeak. Beste autokoak, helmugatik 200 metrora ezarritako kontrolean, zain daude. Grabadorek lokutorio itxien soinak jasoko dituzte. Ahaztu ezin direnak papelean idatzirik, gose grebak eragiten dituen ondorioak nonahi; 40 minutu partekatu beharreko hamar metro karratuko ziegan itotzen diren istorioak kontatzeko.